

opusdei.org

Pedro Duque, Erain ikastetxeko Fisika irakasle ordubetez

“Irabazi egin diguzue Europako
Agentziari” esan zien
astronautak ikasleei
bideohitzaldiaz

2004 Mai 20

Erain, Irunen dagoen irakaskuntza
ertaineko ikastetxea da. Bertako
irakasleek kalitatezko heziketa
ematen saiatzen dira, nola teknikoa
hala giza mailakoa, San Josemariaren

irakatsiei jarraituz. Beraiek ematen digute azken emaitzaren berri.

“Gurean inoiz ez du Zientzietako saio batek piztu horrenbesteko ikusmira gaurdaino; izan ere, Pedro Duquerekin berarekin bideohitzaldi bat egin ahal izatea ez da eguneroko kontua.

Lehengo ostiralean, hilak 7, Donostiako Miramon Parkean, Eraingo Batxilergoko 2.eko ikasleek astronauta bera izan zuten Fisika irakasle. Jose Luis Granados eta Iker Sanchez, hurrenez hurren Zientzietako eta Ingeleseko irakasleek prestatu zuten saioa; xeheki prestatu ere.

Erain ikastetxearen eta Espazioko Europako Agentziaren aurkezpenek eman zioten hasiera ekitaldiari, biek ingelesez. Jarraian, gaztelaniaz, galdera-erantzunen txanda iritsi zen. Galderak hiru gai motako sailetan bana zitezkeen: espazioko bidaiak,

espaziontzian barruan garatzen diren esperimentu zientifikoak eta, azkenik, Martitzako misioak. Zein dira unerik larrienak espazio-hegalaldi batean? Zer jokaera dute infekzio-gaixotasunek espazioan? Nola liteke hain urrutitik komunikatzea? Etab.

Bideohitzaldia bukatutakoan, Pedro Duquek zorionak eman zizkion ikastetxeari, saioaren prestakuntza hobeazina izan zelako, bai teknika aldetik – irabazi egin diguzue Europako Agentziari, esan zuen hitzez hitz -, bai edukien aldetik ere, egin zitzaizkion galdera interesgarriengatik.

El Mundo, 2004-V-8

ikastetxeko-fisika-irakasle-ordubetez/
(2026 Mar 10)